


# Merkatuaren Segmentazioa

Gure bezeroak **eskolak**, bai **publikoak** bai **pribatuak**, izango dira, gure helburua nerabeak laguntzea delako leku hauetan gure zerbitzua ematen eta gainera unibersala da, hots, pertsona guztientzako denez, edozein eskola motan egon daiteke zerbitzu hau. Honen ondorioz, **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa dituzten institutoetan** arreta ipiniko dugu, eskoletan oraindik oso gazteak direlako guk haien bizitzaren antolaketarekin laguntzeko. Honetaz gain, **Bizkaian** bakarrik hasiko gara, etorkizunean hedatzeko helburua izanda.

Hurrengo grafikan Bizkaiko eskola publikoen, pribatuen eta itunpekoen kantitatea adierazten da:

Bizkaiko Eskola Mota Bakoitzaren Kantitatea

● Publikoak ● Pribatuak ● Itunpekoak



Ikusi ahal dugunez, gehienak publikoak eta itunpekoak dira, pribatuak berriz, bakarrik 4 dira. Horregatik, lehen pausua **sektore publikoan** sartzea da, horrela merkatu bat bermatuta izateko. Ondoren, bigarren pausuan, eskola pribatuetara ailegatzen eta bide zuzenean eskola publikoetara eta itunpeko eskoletara ailegatzen saiatuko gara haiekin pertsonalki hitz egiten.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Sailarekin hitz egingo dugu, eskola publikoak eta itunpeko eskolak kudeatzen dituelako eta horrela lana bermatuta izan ahal dugulako. Zehazki, sailaren barruan kokatzen den **Hezkuntza Sailburuordetzarekin** harremanetan jarriko gara, Maria Begoña Pedrosa Lobatok eramaten duena. Gainera, Hezkuntza Sailburuordetzaren barruan Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza daude, gure zerbitzua zabaltzeko garrantzitsuak ere izan ahal direnak.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza eskoletan sartu ahal diren ekintza desberdinetaz arduratzen da, bai akademikoagoak direnak, bai ikasleak pertsonalki hobetu

ahal dituztenak. Gure zerbitzua ikasleak pertsonalki laguntzeko da, beraz Amaia Agirre Pinedok, sailaren arduraduna dena, bere laguntza eman ahal digu.

Bitartean, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak, Eugenio Jiménez Ibáñezek eramaten duena, antzeko ardura du, eskolen plangintza estrategikoa eta kudeaketa eramaten duelako.

Bigarren pausua egiteko, AMPAekin harremanetan jarriko gara, hau da, ikastetxe publiko bakoitzeko guraso elkartearekin. Horrela haiek pertsonalki gure enpresa kontratatzea erabakitzen badute, gure zerbitzua ematen hasi ahal gara, Eusko Jaularitzarekin akordioa oraindik izan barik.

Honetaz gain, itunpeko eskolekin gauza antzekoa egingo dugu, hau da, Eusko Jaularitzatik ere ailegatu ahal garenez, akordioa lortzen dugun bitartean haiekin pertsonalki hitz egingo dugu, baina kasu hauetan zuzendaritzarekin. Horretarako hurrengo kontuan hartu behar da: Itunpeko ikastetxeak Estatuaren dirulaguntzak jasotzen dituzten enpresak dira, hau da, hezkuntza publikoaren eta pribatuaren alderdiak uztartzen ditu, hala nola ekonomikoki gurasoen mende ez egotea, baina hezkuntza publikoarena bezain hezkuntza markaturik ez eskaintzea. Horrela, horrelako zentroek askatasun handiagoa dute kudeatzeko orduan, gurasoek ikastetxeak ezartzen duen hileko kuota bat baino ez baitute ordaindu behar. Itunpeko eskolek, publikoek ez bezala, instalazioak berritzeko eta ikastetxeko hezkuntza hobetzeko alderdiak ezartzeko erabili ahal dituzte beren finantzaketa. Hor sartzen gara gu, beren ikastetxeetako hezkuntzaren hobekuntza bermatuz. Ildo beretik, itunpeko ikastetxeek eskaintzen duten abantaila nagusietako bat eskolaz kanpoko jardueren eskaintza da, besteak beste, kirolak, saskibaloia edo futbola, robotika tailerrak... haurren garapen intelektuala bultzatzea du helburu. Gure zerbitzua aukera ezin hobe da garapen intelektual hori arrakastaz lortzeko eta ikasleengan geldialdirik sor ez dadin, bai psikologikoki bai akademikoki.

Azkenik, eskola pribatuekin harremanetan jartzeko, itunpeko eskoletan esandakoa ere egingo dugu, hots, azken horietako zuzendariekin hitz egin beharko dugu. Horregatik, hasteko, zerrenda bat egingo dugu Bizkaian dauden eskola pribatuekin.

Gainera, erakunde pribatuak direnez, beharrezkoa izango da kudeaketa-organoak erabakitzea laguntza hori eman ala ez. Gainera, kudeaketa-organo hori honako hau izan daiteke: gurasoak, irakasleak (irakasleen kooperatiba izanez gero), zuzendaria..., beraz eskolaren arabera pertsona batzuekin edo besteekin hitz egin beharko dugu.

### **Gure plangintza:**

|                   | <b>1. Pausua</b>                      | <b>2. Pausua</b>               |
|-------------------|---------------------------------------|--------------------------------|
| <b>Publikoak</b>  | Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Saila | AMPA                           |
| <b>Itunpekoak</b> |                                       | Zuzendaritza/Kudeaketa Organoa |
| <b>Pribatuak</b>  |                                       |                                |

**Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzeko:** [Departamento de educación](#)

**Bizkaiko eskola pribatuen zerrenda:**

- 1- St George ikastetxea
- 2- Ikastetxe frantsesa
- 3- Ikastetxe ingelesa
- 4- Ikastetxe alemaniarra
- 5- Ameriketako Ikastetxea